



EBAZPENA, 2016KO ABENDUAREN 20KOA, IKASTETXEEN ZUZENDARIARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HIZKUNTZA-ESKOLA OFIZIALETAN 2017. URTEAN EGINGO DIREN PROBA LIBREEN DEIALDIA ETA PROBA HORIEK NOLA EGINGO DIREN ARAUTZEKOA.

Otsailaren 24ko 46/2009 Dekretuak araubide bereziko hizkuntza-ikasketak ezartzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoan, eta berariaz arautzen ditu haien mailak: oinarrizkoa, tartekoa, aurreratua eta gaitasun-maila. Dekretu horrek arautzen du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren, gaur egun Hezkuntza Sailaren eskumena dela probak antolatzea, irakaskuntza-erregimen presentzian matrikulatuta ez dauden pertsonak aukera izan dezaten hizkuntza-ziurtagiriak eskuratzeko.

Beste aldetik, 2013ko uztailaren 3ko Aginduak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarenak, arautzen du nola onartu eta matrikulatu behar diren erregimen ofizialeko edo libreko ikasleak Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-eskola ofizialetan ematen diren hizkuntza-irakaskuntzetan.

Agindu horren 3. artikulua ezartzen duenez, urtero-urtero deialdi bat egingo da ikasle libreak onartu eta matrikulatzeko prozesua aurrera eramateko, eta horretarako, Ikastetxeen zuzendariak ebazpena eman, eta Hezkuntza Saileko web orrian argitaratuko da. Artikulu horretan jaso denez, Ebazpen honetan arautuko dira eskaerak aurkezteko era eta lekua, eskaerekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa eta prozeduraren fase bakoitzeko epeak.

Hori dela eta, aurrean aipatutako Dekretu eta Aginduan xedatutakoaren arabera, honako hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.- Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-eskola ofizialetan 2017. urtean egingo diren proba libreetan matrikulatzeko eta proba horiek egiteko baldintzak eta eskakizunak onartzea Ebazpen honen I. eranskinean, proba horien egutegia finkatzea II. eranskinean eta zenbat lagun matrikulatu ahal izango diren gehienez eskola, hizkuntza eta maila bakoitzean xedatzea III. eranskinean.

AZKEN XEDAPENAK

Azken xedapenetako lehenengoa.- Ondorioak.

Ebazpen honek ondorioak izango ditu Hezkuntza Saileko web orrian argitaratzen denean. Bertan mantenduko da, eranskinekin batera, deitutako prozedura amaitu arte eta hura betetzeko errekurtsio-epeak igaro arte.

Azken xedapenetako bigarrena.- Errekurtsoak.

Ebazpen honen aurka, gorako errekurtsioa jarri ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuordeari hilabeteko epean, Hezkuntza Saileko web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko abenduaren 20an

Ikastetxeen zuzendaria,
JESÚS FERNÁNDEZ IBAÑEZ



I. ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HIZKUNTZA-ESKOLA OFIZIALETAN 2017. URTEAN EGINGO DIREN PROBA LIBREETAN MATRIKULATZEKO ETA PROBA HORIEK EGITEKO BALDINTZAK ETA ESKAKIZUNAK

1.- Deialdia.

1.1.- 2017. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-eskola ofizialek erregimen librean matrikulatutako ikasleentzako probak egingo dituzte, irakasten dituzten hizkuntza guztietan, maila hauetan:

- Oinarrizko Maila (A2)
- Tarteko Maila (B1)
- Maila Aurreratua (B2)

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-eskola ofizialek erregimen librean matrikulatutako ikasleentzako probak egingo dituzte Gaitasun Mailan (C1), eskolek irakasten dituzten hizkuntza guztietan, euskararen kasuan izan ezik. Hezkuntza Sailak aukera ematen du Gaitasun Mailako Ziurtagiria (C1) lortzeko, EGA titulua lortzeko urtero deitzen dituen proba librean bidez.

Irakasten dituzten hizkuntza-maila guztietako azterketak egingo dituzte eskolek.

1.2.- 2016-2017 ikasturtean, ikasle libreek deialdi bakarra izango dute dagokion maila gainditzeko. Maiatza eta ekaina bitartean egingo dira probak.

2.- Probak egiteko betekizunak.

2.1.- Adina. Probetarako matrikula egin dezakete 2017. urtean 16 urte dituztenek edo urte horretan adin hori betetzen dutenek.

2.2.- 2016-2017 ikasturtean hizkuntza baten edozein mailatan erregimen ofizialean matrikulatutakoek ezin dute matrikularik egin erregimen librean hizkuntza bereko ezein mailatan.

2.3.- Eskatzaileek ezin izango dute gaindituta duten maila batean edo baxuagoan matrikula egin. Horretarako, kontuan hartuko dira baita ere aurreko ikasketa-planetan gainditutako mailak, matrikula egiteko unean daudenen baliokideak direnak legez.

2.4.- Ikasleek ezin izango dute gaztelaniarako matrikula egin haien herrialdeetako hizkuntza ofiziala gaztelania bada.

3.- Prozesutik kanporatzea.

Egiaztatzen bada eskatzaileak ez duela betetzen deialdiko eskakizunen bat, prozesutik kanporatua izan daiteke edozein unetan. Eskatzaileak kanporatuak izan daitezke proba egin ondoren ere.

4.- Eskaerak aurkeztea.

4.1- Eskatzaileak onartzea. Hizkuntza berean, pertsona bakoitza eskola eta maila bakar batean matrikulatu ahal izango da libre modura. Norbaitek matrikulatutako maila aldatu nahi badu, dagokion hizkuntza-eskola ofizialean eskaera bat aurkeztu behar du. Eskaera hori,



onartuen eta baztertuen zerrendari erreklamazioak aurkezteko emango den epe barruan egingo du. Epea bukatuta, ez da maila aldaketarik onartuko. Dagokion eskolan eskatutako mailan plaza hutsik geratu ezean, eskabidea baztertu egingo da. Norbaitek bi hizkuntza edo gehiagotan matrikulatu nahi badu, eskaera bat egin behar du hizkuntza bakoitzeko.

4.2.- Eskaerak aurkezteko modua. Ebazpen honen bidez araututako matrikula egin nahi duten pertsonak Internet bidez soilik egin dezakete matrikula hori, Hezkuntza Sailaren helbide elektronikoa honetan ematen den ereduaren bidez: <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/hizkuntza-eskola-ofizialak>.

4.3.- Eskabidea modu telematikoan (Internet bidez) betetzeko edo prezio publikoa ordaintzeko gorabeherarik edo zailtasunik dutenek hizkuntza-eskola ofizialera jo beharko dute, lagundu diezaieten edo izapide horiek modu telematikoan egiteko baliabide materialak utz diezazkieten. Zein eskolatan matrikulatu nahi duten, eskola horretara joan beharko dute, jendearentzako arreta-ordutegian eta eskabideak aurkezteko eta prezio publikoa ordaintzeko epean.

4.4.- Modu telematikoan arazorik edo zailtasunik izatearren kanpoan geratutako lagunek baztertuen zerrenden kontrako erreklamaziorik egin behar izanez gero, eskolako ziurtagiria aurkeztu beharko dute, adierazteko pertsona horrek epe barruan jo zuela eskolara, zailtasun horiek gainditzeko.

Horrelako gorabeherarik izan ez dadin, beti gomendatzen dugu ez atzeratzea epe-amaierara arte izapide telematiko horiek egiteko lanak.

4.5.- Eskatzaileak Espainiako nazionalitatea badu, beharrezkoa da Nortasun Agiri Nazionalaren (NAN) zenbakiarekin eta horren iraungitze-datarekin identifikatzea. Atzerritarren Identifikazio Zenbakiaren (AIZ) eta Atzerritarren Identifikazio Txartelaren (AIT) zenbakiaren eta iraungitze-dataren bidez identifikatuko dira. Kasu bietan eskatzailearen identitatea egiaztatu egingo da, pertsona horren berriazko baimenarekin, datuak egiaztatzen zerbitzuaren bidez, otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak, Administrazio Elektronikoari buruzkoak, 2. xedapen gehigarrian aipatzen duen bezala. Identifikazio datuak benetakoak ez badira, eskatzailea prozesutik kanpo geratuko da.

4.6.- Atzerritarren Identifikazio Zenbakirik ez duten Norvegiako, Islandiako, Liechtensteineko, Suitzako eta Espainia ez den Europar Batasuneko beste herrialde batzuetako herritarrak haien herrialdeak emandako beste nortasun agiri ofizial baten bidez identifikatu ahal izango dira. Horrelakoetan, identifikazio datuak benetakoak direla egiaztatzen, dagokion dokumentua aurkeztu beharko da dagokion hizkuntza-eskolan. Dokumentu hori aurkezteko epea 2017ko otsailaren 16an, 13:00etan amaitzen da. Epe barruan aurkezten ez bada, eskatzailea prozesutik kanpo geratuko da, eta ordaindutakoa itzultzeko eskubiderik ez du izango.

4.7.- 2013ko uztailaren 3ko Aginduak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarenak, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-eskola ofizialetan ikasleak onartu eta matrikulatzea arautzen du. Agindu horren 26. artikuluan xedatutakoaren arabera, eskabidea egiteko unean, pertsona bakoitzak erabaki ahalko du zein hizkuntza eskolatan matrikulatu nahi duen, dagokion hizkuntzan eta mailan plazak eskaintzen dituzten artean. Eskola batean hizkuntza eta maila jakin bateko plazak agortzen badira, matrikula egiten duten hurrengokoek hizkuntza eta maila hori eskaintzen duten eskolen artean aukeratu beharko dute, plaza liberrik badago.

4.8.- Eskaera datuak bete ondoren, matrikularen prezio publikoa ordaindu behar da. Prezio publiko hori xedatzen du 2013ko uztailaren 10eko Aginduak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuarenak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak prestatzen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak finkatzen dituenak (2013-07-31ko EHAA).



5.- Eskaera egin, ordaindu eta dokumentazioa aurkezteko epea.

5.1.- Matrikula egin eta ordaintzeko epea honako hau izango da: 2017ko otsailaren 1etik, 10:00etatik, otsailaren 15era, 13:00etara.

5.2.- Dokumentazioa aurkeztu. Ondoren azaltzen den egoeratan, a), b), c) eta d) ataletan, eskabidea egin ostean, eta kontuan izanik horretarako azken eguna 2017ko otsailaren 16ko 13:00ak arte dela, eskatzaileak eskabidea egin duen hizkuntza-eskola ofizial berean on-line egindako eskaeraren ordezkagiriaren kopia aurkeztu beharko du; horrez gain, agiri hauek ere aurkeztu beharko ditu:

a) Atzerritarraren Identifikazio Zenbakia ez, beste agiri baten bidez identifikatu diren atzerritarrak: agiri hori aurkeztu beharko dute; aurkezten ez bada, eskatzailea prozesutik kanpo geratuko da, eta ordaindutako zenbatekoa itzultzeko eskubiderik ez du izango.

b) Familia Ugaria direnek, Euskal Autonomia Erkidegokoak salbu, beste Autonomia Erkidego batek luzatutako titulu ofiziala aurkeztuko dute. Dokumentu hori eskatutako hizkuntza-eskola ofizialean aurkeztu behar izango da Ebazpen honetan zehazten den epean. Dagokion dokumentua aurkezten ez bada, eskatzailea prozesutik kanpo geratuko da, eta ordaindutako zenbatekoa itzultzeko eskubiderik ez du izango.

Euskal Autonomia Erkidegokoak emandako Familia Ugarien tituluen kasuan, ofizioz egiaztatuko dira Administrazioak duen informazioarekin erkatuta. Ezin badira datuak ofizioz egiaztatu, eskatzaileak dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du plaza eskatu duen hizkuntza-eskolan, epe barruan.

c) Azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 25. artikulua araberako terrorismoaren biktimei diren eskatzaileek dagokien Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak edo antzeko erakundeak egindako egiaztagiria aurkeztu behar dute, 2017an eguneratua. Dokumentu hori aurkezten ez bada, eskatzailea prozesutik kanpo geratuko da.

d) Hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonak eta azterketarako laguntza eskaria egin badute eskabide orrian, gaurkotutako mediku-agiria edo desgaitasun-agiria aurkeztu beharko dute. Horrelakorik adierazi ezean, ez zaie curriculumean sartzeko edo ebaluazio-probak egiteko behar duten laguntzarik bermatuko.

Goian aipatutako dokumentazio hori paperean aurkeztu beharko du eskatzaileak matrikulatu nahi duen eskolan. Dokumentazioa hizkuntza-eskoletako bulegoetan aurkeztu beharko da, hain zuzen ere helbide hauetan:

- Vitoria-Gasteizko Hizkuntza Eskola Ofiziala: Lasarte errepidea, 23; Vitoria-Gasteiz.
- Donostia-San Sebastiango Hizkuntza Eskola Ofiziala: Bizkaia pasealekua, 22; Donostia.
- Eibarko Hizkuntza Eskola Ofiziala: Jardifñeta, 3; Eibar.
- Irungo Hizkuntza Eskola Ofiziala: Alcaldía de Sacas, 13; Irun.
- Tolosako Hizkuntza Eskola Ofiziala: Paper kalea, 1-3; Tolosa
- Ordiziako Hizkuntza Eskola Ofiziala: Barrena parkea, z/g; Ordizia.
- Bilboko Hizkuntza Eskola Ofiziala: San Pedro plaza, 5; Bilbo.
- Getxoko Hizkuntza Eskola Ofiziala: Eskoletako enparantza, z/g; Getxo.



- Durangoko Hizkuntza Eskola Ofiziala: Zubiaurrea, 1; Durango.
- Barakaldoko Hizkuntza Eskola Ofiziala: Juan de Garay kalea, z/g; Barakaldo.
- Bermeoko Hizkuntza Eskola Ofiziala: Zubiaur tar Kepa, 72; Bermeo.
- Basauriko Hizkuntza Eskola Ofiziala: Bentako plaza, 1; Basauri.
- Zallako Hizkuntza Eskola Ofiziala: La Inmaculada, 15 bis; Zalla.
- Santurtziko Hizkuntza Eskola Ofiziala: José Miguel de Barandiaran, 12; Santurtzi.

Zuzenean zerbitzuko bulegoetan ere aurkeztu ahal izango dira, helbide hauetan:

- Araba: Ramiro de Maeztu kalea, 10 behe, Vitoria-Gasteiz.
- Bizkaia: Kale Nagusia, 85; Bilbo.
- Gipuzkoa: Andia 13; Donostia.

Era berean, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16.4 artikuluan zehaztutako edozein lekutan ere aurkez daitezke eskabideak, lege horretan ezarritako baldintzatan. Posta-zerbitzuko bulegoren batean aurkeztu nahi bada eskabidea, gutun-azal irekian aurkeztu beharko da, eta zerbitzu horretako funtzionarioak eguna eta zigilua jarri beharko dizkio, gutun-azala egiaztatu aurretik. Horrela egin ezean, helburuko bulego publikoan duen sarrera-eguna joko da sarrera-eguntzat.

Dokumentazioa aurkezteko, jatorrizko dokumentuaren fotokopia aurkeztu beharko da. Fotokopia eta jatorrizko dokumentua bat datozela egiaztatu beharko du baimendutako notario batek; bestela, fotokopia konpultsatu beharko du hizkuntza-eskola ofizialeko bulegoak edo erregistro nagusiak edo laguntzaileak, betiere apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuko 17. artikulua araberak (72/2008 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoa; 2008-05-30eko EHAA).

6.- Ordainketa egiteko modua.

6.1.- Dagokion prezio publikoa ordaintzeko modu hauek izango dira:

- Ordenagailuren batetik, Internet bidez, banku-sukurtsaleraino joan beharrik izan gabe. Eguneko 24 ordutan erabil daiteke ordaintzeko modu hori. Visa, Maestro edo Mastercard txartelen bidez egin daiteke ordainketa, edo banketxe hauen banka elektronikoko zerbitzuaren bidez: Kutxabank (BBK, Vital, Kutxa), Laboral Kutxa, SabadellGuipuzcoano, CaixaBank, Bankoa, BBVA, Banco Santander, BANKIA eta Banco Popular.

- Jarraian adierazten diren banketxeetako sukurtsaletara joanez. Banketxe hauetako sukurtsaletan ere ordain daiteke matrikula: Kutxabank (BBK, Vital, Kutxa), Laboral Kutxa, SabadellGuipuzcoano, CaixaBank, Bankoa, BBVA, Banco Santander Kutxa, BANKIA eta Banco Popular. Ordainketa hori egiteko, matrikula egitean eman zaien egiaztagiria edo ordainketa-agiria aurkeztu behar dute eskatzaileek.

6.2.- Ordainketa egin duenaren akats baten ondorioz pertsona batek behar ez den ordainketaren bat egin badu, pertsona horrek ez du izango eskubiderik diru hori bueltan jasotzeko.

6.3.- Ezarritako prezio publikoa ez ordaintzearen ondorioak. Eskatzailearen batek ez badu



ordaintzen ezarritako prezio publikoa eskaerak aurkezteko epean, prozesutik kanporatu egingo da. Beste aldetik, nahitaezkoa izango da, beti, eskaerak garaiz eta araututako moduan aurkeztea. Prezio publikoaren aurkezpena eta ordainketa egitea ez da izango inoiz izapide horren ordeko.

7.- Matrikulazio-prozesuko datuak kudeatu eta babesteko modua.

Eskaerarekin batera, Erantzukizunpeko Adierazpen bat aurkeztuko da; bertan, eskatzaileak adierazi behar du eman dituen datu guztiak egiazkoak direla eta bere gain hartzen dituela horien zehaztasun ezak eragin ditzakeen erantzukizunak; horrez gain, Hezkuntza Saila baimentzen du dagozkien erakundeen erregistroetan beharrezko diren egiaztapen guztiak egiteko. Era berean, Administrazioari baimena emango zaio beharrezko datuak kontsultatzeko, matrikula betetzearekin lotutako edozein egiaztapen egiteko.

Lege hauek arautuko dute fitxategi horren erabilera eta funtzionamendua: 15/1999 Lege Organikoak, abenduaren 13koak, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoak, eta 2/2004 Legeak, otsailaren 25ekoak, Datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta datuak babesteko euskal bulegoa sortzeari buruzkoak.

Ikastetxeen Zuzendaritza izango da hizkuntza-eskola ofizialetako ikasleei buruzko datuak jasoko dituen fitxategiaren arduraduna, eta Ikastetxeen zuzendariarengana jo behar da datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko eskubideak erabiltzeko: Donostia-San Sebastian kalea, 1, 01010, Vitoria-Gasteiz.

8.- Informazioa argitaratzea eta iragarki-taulak.

Eskatzaileek <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/hizkuntza-eskola-ofizialak> orrialdean eta hizkuntza-eskola ofizialetako (HEO) iragarki-tauletan jakin ahal izango dute onartuak ala prozesutik baztertuak izan diren, eta, baztertuak izan badira, zergatik ezetsi den haiek egindako eskaera. Horretarako eskatzaileek, NANaren edo AIZaren zenbakia eta haren iraungitze data sartu beharko dituzte. Dokumentu hauek eduki ezik, identifikazio zenbakia eta bere jaiotza data. Eskaera bat baino gehiago egin baditu pertsonaren batek, horien guztien egoera kontsultatu ahal izango du, NANaren zenbakia eta bere iraungitze data sartuz.

9.- Prozesua egiteko modua.

9.1.- Onartutako eta baztertutako eskatzaileen zerrenda. Eskatzaileak adierazi dituen datuak egiaztatu, ordainketa egin dela ziurtatu eta, hala badagokio, beharrezko dokumentazioa aurkeztu duela ziurtatu ondoren, hizkuntza eskola ofizialek 2017ko otsailaren 20an argitaratuko dute onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda, eta zerrenda horietan berariaz adieraziko da hizkuntza eta maila bakoitzean eskatzailea baztertu izanaren arrazoiak. Epe bat emango da erreklamazioak aurkezteko.

9.2.- Erreklamazioa egiteko, matrikula egiteko erabili duten webgunean dagoen edo hizkuntza-eskola ofizialak emango dien inprimakia erabili ahal izango dute. Erreklamazio bat aurkeztu behar dute erreklamatu nahi duten eskaera bakoitzeko, dagokion hizkuntza-eskola ofizialean. Erreklamazioak aurkezteko epea 2017ko otsailaren 22an amaituko da.

9.3.- Onartutako eta baztertutako eskatzaileen behin betiko zerrenda. Aurreko paragrafoan adierazitako epea igarotakoan, hizkuntza-eskola ofizialek 2017ko otsailaren 24an argitaratuko dute, 8. puntuari adierazitako lekuetan, onartu eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda, eta arrazoiak emango dituzte hizkuntza eta maila bakoitzean baztertu diren eskaerak baztertzeko.



10.- Egiaztagiriak.

10.1.- Onartutako ikasleek matrikula egin duten hizkuntza-eskola ofizialean aurkeztuko dira azterketara. Edozein mailetako egiaztagiria lortzeko matrikulatutako ikasle libreek ebaluazio positiboa lortu beharko dute trebetasun hauetan: entzumena, irakurmena, idazmena eta mintzamena. Trebetasun horietako edozeinetan ebaluazio negatiboa izanez gero, ikasleak ezingo du egiaztagiria lortu.

10.2.- Trebetasun horiek ebaluatzeko, ikasle libreek, lehenbizi, idatzizko proba egingo dute; proba horretan mintzamena ez beste trebetasun guztiak ebaluatuko dira. Idatzizko proba bera egingo zaie ikasle guztiei, eta Ebazpen honen II. eranskinean zehaztutako datetan egin beharko da, egun eta ordu beretan, eskolek zehazten dituzten tokietan.

10.3.- Idatzizko probako hiru trebetasunetan ebaluazio positiboa lortzen dutenek ahozko proba egin beharko dute mintzamena ebaluatzeko; eskolek zehaztuko dute non eta noiz (eguna eta ordua) egingo den. Proba gainditzen badute, ikasleek dagokien mailaren egiaztagiria eskuratuko dute.

10.4.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko maiatzaren 15eko Aginduak Erregimen Bereziko Hizkuntza Ikasketak ebaluatzea eta egiaztatzea arautzen du. Agindu horren 5. artikulua 8. zenbakian xedatutakoaren arabera, kalifikazio-probak egin baina oinarritzko maila, bitarteko maila, maila aurreratua edo gaitasun maila lortzen ez duten ikasleek, gainditutako trebetasunei buruzko egiaztapen akademikoa eskatu ahal izango dute. Ikasleek duten eskubide hori bermatzeko, honako hau egingo da:

a) Idatzizko proban ebaluatzen diren trebetasun guztiak gainditzen ez dituzten ikasleei, probaren emaitzen berri ematearekin batera, dagokien mailaren egiaztagiria ezin dutela eskuratu azalduko zaie. Horrez gainera, azalduko zaie trebetasunen batean ebaluazio positiboa lortu arren, hori ez dela kontuan hartuko hurrengo deialdietan.

Halaber, ikasle horiei jakinaraziko zaie, hori guztia horrela izanik ere, nahi izanez gero ahozko proba egin dezaketela, eta horretarako berariazko eskaera aurkeztu behar dutela idatziz, ezarritako epealdiaren barruan. Argi eta garbi ohartaraziko zaie proba horren emaitza edozein dela ere ez dutela jasoko dagokien mailaren egiaztagiria, beste trebetasunetako bat ez baitute gainditu, eta adieraziko zaie gainditutako trebetasunak ez direla aintzat hartuko hurrengo deialdietan.

Ahozko proba egitea behar den bezala eta ezarritako epealdiaren barruan eskatzen dutenei proba-deialdia bidaliko zaie, eskola bakoitzak zehazten dituen tokian, egunean eta orduan egiteko.

b) Dagokien mailaren egiaztagiria eskuratzen ez duten ikasleek ziurtagiri akademikoa eskatu ahal izango dute; ziurtagiri horrek jasoko du dagokion urteko deialdian zein trebetasun gainditu dituzten, ebaluazio positiboa lortuta.



II. ERANSKINA

EGIAZTAGIRIAK ESKURATZEKO AZTERKETEN EGUTEGIA

DEIALDI BAKARRA 2016-2017

HIZKUNTZA	MAILA	EGUNA	ORDUTEGIA *
-----------	-------	-------	-------------

ALEMANA	OINARRIZKOA (A2)	2017/06/13	
	TARTEKOA (B1)	2017/06/13	
	AURRERATUA (B2)	2017/06/13	
	GAITASUNA (C1)	2017/06/13	

GAZTELANIA	OINARRIZKOA (A2)	2017/06/08	
	TARTEKOA (B1)	2017/06/08	
	AURRERATUA (B2)	2017/06/07	
	GAITASUNA (C1)	2017/06/07	

EUSKARA	OINARRIZKOA (A2)	2017/06/05	
	TARTEKOA (B1)	2017/06/06	
	AURRERATUA (B2)	2017/05/31	

FRANTSESA	OINARRIZKOA (A2)	2017/06/12	
	TARTEKOA (B1)	2017/06/12	
	AURRERATUA (B2)	2017/06/12	
	GAITASUNA (C1)	2017/06/12	

INGELESA	OINARRIZKOA (A2)	2017/06/01	
	TARTEKOA (B1)	2017/06/02	
	AURRERATUA (B2)	2017/05/26	
	GAITASUNA (C1)	2017/06/01	



ITALIERA	OINARRIZKOA (A2)	2017/05/31	
	TARTEKOA (B1)	2017/05/31	
	AURRERATUA (B2)	2017/06/06	
	GAITASUNA (C1)	2017/06/06	

PORTUGESA	OINARRIZKOA (A2)	2017/05/31	
	TARTEKOA (B1)	2017/06/16	
	AURRERATUA (B2)	2017/06/14	
	GAITASUNA (C1)	2017/06/14	

ERRUSIERA	OINARRIZKOA (A2)	2017/06/14	
	TARTEKOA (B1)	2017/06/15	
	AURRERATUA (B2)	2017/05/26	
	GAITASUNA (C1)	2017/06/02	

* Kontsultatu ordutegiak hizkuntza-eskoletan.



III. ERANSKINA: ESKOLA, HIZKUNTZA ETA MAILA BAKOITZEAN ZENBAT PERTSONA MATRIKULATU AHAL IZANGO DEN GEHIENEZ.

Vitoria-Gasteizko Hizkuntza Eskola Ofiziala:

	A2	B1	B2	C1
Alemana	149	141	91	66
Gaztelania	50	50	73	90
Euskara	82	409	863	0
Frantsesa	110	191	147	117
Ingelesa	80	409	639	366
Italiera	0	0	0	0
Portugesas	0	0	0	0
Errusiera	0	0	0	0

Donostiako Hizkuntza Eskola Ofiziala:

	A2	B1	B2	C1
Alemana	54	179	170	81
Gaztelania	50	50	92	92
Euskara	50	176	525	0
Frantsesa	379	365	162	96
Ingelesa	100	459	525	387
Italiera	0	0	0	0
Portugesas	0	0	0	0
Errusiera	0	0	0	0

Eibarko Hizkuntza Eskola Ofiziala:

	A2	B1	B2	C1
Alemana	90	90	85	50
Gaztelania	0	0	0	0
Euskara	50	106	150	0
Frantsesa	92	60	60	60
Ingelesa	70	203	303	177
Italiera	0	0	0	0
Portugesas	0	0	0	0
Errusiera	0	0	0	0



Irungo Hizkuntza Eskola Ofiziala:

	A2	B1	B2	C1
Alemana	88	75	75	75
Gaztelania	0	0	0	0
Euskara	30	182	377	0
Frantsesa	97	161	168	142
Ingelesa	65	192	294	200
Italiera	0	0	0	0
Portugesa	0	0	0	0
Errusiera	0	0	0	0

Ordiziako Hizkuntza Eskola Ofiziala:

	A2	B1	B2	C1
Alemana	0	0	0	0
Gaztelania	0	0	0	0
Euskara	0	0	0	0
Frantsesa	100	100	100	99
Ingelesa	100	159	159	100
Italiera	0	0	0	0
Portugesa	0	0	0	0
Errusiera	0	0	0	0

Tolosako Hizkuntza Eskola Ofiziala:

	A2	B1	B2	C1
Alemana	0	0	0	0
Gaztelania	0	0	0	0
Euskara	0	0	0	0
Frantsesa	100	100	100	100
Ingelesa	50	100	100	75
Italiera	0	0	0	0
Portugesa	0	0	0	0
Errusiera	0	0	0	0



Barakaldoko Hizkuntza Eskola Ofiziala:

	A2	B1	B2	C1
Alemana	86	87	50	50
Gaztelania	0	0	0	0
Euskara	50	372	625	0
Frantsesa	102	102	155	50
Ingelesa	100	276	502	198
Italiera	0	0	0	0
Portugesa	0	0	0	0
Errusiera	0	0	0	0

Basauriko Hizkuntza Eskola Ofiziala:

	A2	B1	B2	C1
Alemana	0	0	0	0
Gaztelania	0	0	0	0
Euskara	50	165	175	0
Frantsesa	90	90	104	50
Ingelesa	20	117	117	40
Italiera	0	0	0	0
Portugesa	0	0	0	0
Errusiera	0	0	0	0

Bermeoko Hizkuntza Eskola Ofiziala:

	A2	B1	B2	C1
Alemana	0	0	0	0
Gaztelania	0	0	0	0
Euskara	40	90	207	0
Frantsesa	50	50	80	66
Ingelesa	40	90	135	75
Italiera	0	0	0	0
Portugesa	0	0	0	0
Errusiera	0	0	0	0



Bilboko Hizkuntza Eskola Ofiziala:

	A2	B1	B2	C1
Alemana	220	168	104	104
Gaztelania	50	42	83	158
Euskara	51	389	802	0
Frantsesa	296	285	234	184
Ingelesa	318	637	883	587
Italiera	125	245	185	101
Portugesa	58	72	66	66
Errusiera	38	25	34	51

Durangoko Hizkuntza Eskola Ofiziala:

	A2	B1	B2	C1
Alemana	124	124	86	50
Gaztelania	0	0	0	0
Euskara	90	149	345	0
Frantsesa	190	190	120	50
Ingelesa	264	345	345	247
Italiera	0	0	0	0
Portugesa	0	0	0	0
Errusiera	0	0	0	0

Getxoko Hizkuntza Eskola Ofiziala:

	A2	B1	B2	C1
Alemana	100	55	104	78
Gaztelania	0	0	0	0
Euskara	42	180	365	0
Frantsesa	206	144	180	90
Ingelesa	323	475	475	250
Italiera	0	0	0	0
Portugesa	0	0	0	0
Errusiera	0	0	0	0



Santurtzikoko Hizkuntza Eskola Ofiziala:

	A2	B1	B2	C1
Alemana	0	0	0	0
Gaztelania	0	0	0	0
Euskara	0	0	0	0
Frantsesa	135	109	109	81
Ingelesa	50	168	180	94
Italiera	0	0	0	0
Portugesa	0	0	0	0
Errusiera	0	0	0	0

Zallako Hizkuntza Eskola Ofiziala:

	A2	B1	B2	C1
Alemana	0	0	0	0
Gaztelania	0	0	0	0
Euskara	40	81	138	0
Frantsesa	50	50	50	50
Ingelesa	50	99	100	70
Italiera	0	0	0	0
Portugesa	0	0	0	0
Errusiera	0	0	0	0